

NAFARROAN ELIKAGAIK ALFERRIK GALTZEA MURRIZTEKO AGENDA 2022-2027

“Jarri kilo bat tomate jateko eta kilo-erdia botatzeko” (Manos Unidas, 2017)

Elikagai-xahuketaren egoera orokorra islatzen du esaldi adierazgarri horrek. 1.300 milioi tona elikagai baino gehiago alferrik galtzen dira urtero, munduan ekoizten diren elikagaien herena, alegia (FAO, 2011).

BA AL ZENEKIEN?

Nafarroan, **hiru elikagaitik batek zakarrontzian amaitzen du.**

Munduan, ekoiztiriko elikagaien herena alferrik galtzen da.

Europako Parlamentuaren datuen arabera, **elikadurra-xahuketaren % 42 etxetatik dator.**

NAFARROAKO HONDAKINEN PLANA 2017-2027

Agenda bat dator Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Planarekin, zeinak elikagai-katean hondakinak prebenitzeko ekintza-plana egitea barne hartzen baitu, eta Nafarroako Ekonomia Zirkularraren Agendarekin.

6 ERAGIN-ARLO

- 1- Ezagutza sortzea.
- 2- Sentsibilizazioa, formakuntza eta dibulgazioa.
- 3- Jardunbide egokiak sustatzea eta jarraibideak garatzea.
- 4- Lankidetzeta eta hitzarmenak funtsezko eragileekin.
- 5- Arau- eta zerga-esparrua egokitzea.
- 6- Ikerketa eta berrikuntza.

ONDORIOAK

Elikagai-xahuketak hainbat arlotan eragiten du:

- **etiko eta sozialean:** gose diren milioika pertsona daude munduan.
- **ingurumenekoan:** aldaketa klimatikoa gertatzen laguntzen du hainbat baliabide urri beharrik gabe erabiltzeak, hala nola lurra, ura eta energia.
- **ekonomikoan:** jaten ez diren elikagaiek eragina dute kontsumitzaileen zein ekoizleen diru-sarreretan.

15 JARDUKETA

- Elikagai-kateko mailetan sortzen diren elikagai-hondakinak eta -xahuketak kuantifikatzeko prozedurak Nafarroara egokitzea.
- Kontsumitzaileentzako sentsibilizazio-kanpainak sustatzea.
- Xahuketa murrizteko irizpideak sartzea sukaldaritza kolektiboko zerbitzuak kontratatzeke baldintza-agirietan.
- Sektore estrategikoetako funtsezko eragileen arteko hitzarmenak bultzatzea, elikagai-soberakinak probesteko bideak sortzeko.
- Xahuketa saihesteko pizgarri-sistema bat garatzea.
- Eta abar

AGENDAREN HELBURUAK

- Elikagai-hondakinak **% 50** per capita murriztea txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen kontsumoan.
- Elikagai-hondakinak **% 20** murriztea ekoizpen- eta hornidura-kateetan.
- Balio-kateko eragile guztiak inplikatzeko, haien artean sinergiak bila ditzaten.

3 ELIKAGAITIK IEK ZAKARRONTZIAN AMAITZEN DU

1 kg banana	3,98€	790 litro
Letxuga bat	1,19€	71 litro
500 g tomate	1,44€	107 litro
Ogi-barra bat	1,25€	129 litro
500 g txahal-okela	9,02€	7.708 litro

ALFERRIK GALTZEA, GUZTIRA 5,63€ 2.935 litro*

*Elikagaien ekoizpenaren alferrik galtzen diren ur-litroak

Erosketak ez planifikatzea garesti ordaintzen dugu

Nafarroan elikagaiak alferrik galtzea murrizteko agenda 2022-2027

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua 2020-2023 REACTIVAR NAVARRA NAVARRAko SUSPERTU 2020-2023 FIBERTES, FIBERTES green

“Erosketak ez planifikatzea garesti ordaintzen dugu” kanpainaren irudia, agenda onartzean helarazita

6 URTEKO INDARRALDIA

Agenda 2022tik 2027ra egonen da indarrean, eta, bukatutakoan, luzatu edo berrikusi ahal izanen da, egokitze jotzen den edo Europako, estatuko eta erregioko eskakizunak une horretan zein diren.